



Jazz Masterra egin zuen Eizagirrek New Yorken, eta orain bertan bizi da. Jon URBE | FOKU

Gabonen aitzakian etorri da New Yorketik Euskal Herrira Peru Eizagirre hondarribiarra. Eta, hain justu, Olentzerok parte handia dauka bateriarekiko sentitzen duen pasio horretan. «2010eko Gabonetan bateria bat eskatun Olentzerori. Olentzerok ekarri egin zidan eta harrezkeror horretan nabil».

Etxean musikarekiko zaletasuna jaso du txikitatik, «gurasoak ez dira musikariak, baina bai musikazaleak. Betidanik

musika mota desberdin ugari entzun dugu etxean. Sei-zazpi urte nituela, aitak ACDC jarri zidan eta hasieran ez zitzaidan gustatu», gogoratu du. Peru Eizagirrek garbi dauka: «Musikarekin beti izan dut konexioa».

Bateria ez zen izan bere lehen instrumentua, bost urte zituela pianoarekin hasi zen. «Bi urte nituela AEBetara joan ginen bizitzera, Houstonera. Hor hasi nintzen pianoarekin. Gustatzen zitzaidan pianoa jotzea, baina ez praktikatzea. Gero Quatarrera joan ginen bizitzera, eta hor izan nuen nire lehen harremana bateriarekin.

*in*fraganti **PERU EIZAGIRRE**

Gaztea da Peru Eizagirre (Hondarribia, 1999), eta dagoeneko bizi esperientzia mamitsuak sartu ditu poltsikoetan, horietako asko musikari esker. Badira hiru urte New Yorken bizi dela, bertan egin baitzuen Manhattan School of Music Jazz Masterra. Jazzeko bateria-jotzaile profesionala da egun. Gabonetan Euskal Herrian izan da eta Donostiako Victoria Eugenia kontzertua eskaini du, bere konposizio propioak oinarri hartuta.

Zortzi bat urte nituela, eskolagure talenturen bat erakutsi behar genuen, eta gogoratzen naiz bateria jo nuela, erritmo oso oinarrizko bat. Sentituen izugarri gustatu zitzaidala. Erabat autodidakta nintzen bateriarekin».

Artean Quatarren zegoela, eskolara Hegoafrikako danbor-jotzaile bat etorri zen. «Denak borobilean jarrita, berak jotzen zituen erritmoak errepikatzen genituen guk, eta buruan daukat erraza egiten zitzaidala. Berak galdetu zidan ea aurretik egin ote nuen. Danbor-jotzaile hark esan zidan ondo egiten nuela, pentsatzeko aukera horren inguruan».

Bederatzi-hamar urte zituela bueltatu zen familia Euskal Herrira, eta ordurako buruan sendo sartuta zeukan Eizagirrek bateria jo nahi zuela. Olentzero konplize hartuta, etxeko garajea agertu zen bateria, eta eskolatik bueltan ez zuen izaten besterik buruan, bateria jotzea. «Hasieran nire kabuz hasi nintzen. Saiatu ginen Hondarribiko musika eskolan, baina ez zegoen tokirik. Nik garbi nuen zer jo nahi nuen. Musika mota mordoa entzuten nuen eta eskolatik

bueltan egunero bateria jotzen nuen. Hor ez neukan nagirik, pianoarekin bezala».

Hamasei urte zituela, orduko irakasle batek beti esaten omen zion «bateria jotzearena profesionalki egin beharko zenuke». «Niri une horretan beste gauza batzuk ere interesatzen zitzaizkidan, eta beti entzuten nuen inguruan musikaria izatea ez dela oso serioa».

Hamazazpi urte zituela, unibertsitatearen gaia inguruan sumatzen hasi zenean, bateria ikastea erabaki zuen hondarribiarrak. «Bi aukera nituen, jazz edo pop. Iruditzen zitzaidan jazz ikasten banuen aukera gehiago izango nituela bateriarekin. Finean, jazzaren bidez sortu zen bateria, oso instrumentu gaztea da, ehun urte inguru ditu. Iruditzen zitzaidan jazzak aukera emango zidala bateria sakonago ikasteko. Glasgowra joan nintzen, bertako kontserbatorio batera. Nire arreba zaharragoak Edinburgon egin zituen ikasketak, eta nik ere Eskoziara joatea erabaki nuen. Egia esan oso ondo atera zen».

Glasgown jaso zuen musika formakuntzak ez zuen norabide bakarra izan; akademikoa

zegoen alde batetik, eta hiriak musika bizitzeko duen modua, bestetik. «Glasgow nahi-ko hiri txikia da eta musika zuzenean jotzeko aukera asko daude. Horrek esan nahi du lehen urtetik bertatik musika emanaldiak egiteko aukera duzula, bai hasiberriekin eta baita dagoeneko esperientzia dutenekin ere. Musikari onekin jotzeko aukera izatea ederra da», azaldu du..

PAUSO BAT EMATEKO BEHARRA
Glasgown ikasketak bukatu eta beste urtebetez geratu zen

hirian lanean. «Musika eskola batean lan egiten nuen bateria irakasle gisa, eta kontzertuak eskaintzen nituen. Baina iritsi zen puntu bat non iruditzen zitzaidan sabaia jo nuela. Kontzertu onak jotzeko aukerak nituen, baina sentitzen nuen gehiago sakontzeko beste pauso bat eman behar nuela eta hori hiri handiago batera joan-da lortuko nuela. Horregatik joan nintzen New Yorkera».

Hasieran helburua ez zen New York, baina aukera sortu zitzaion bertan Jazz Masterra egiteko. «Oso pozik nago au-

Donostiako Victoria Eugenio kontzertua eskaini zuen Peru Eizagirik duela egun batzuk.
Iñigo IBÁÑEZ

kera hori izan dudalako. Esperientzia izugarria izan da. Glasgown eta New Yorken oso jende mota desberdina dago. Jende asko iritsi eta maitemindu egiten da hiriarekin. Niri ez zitzaidan hori gertatu hasieratik. Hirugarren urtea da New Yorken, eta geroz eta gehiago gustatzen zait. Aukera asko daude, musika entzuteko aukera ugari, jende desberdina ezagutzen duzu».

Jazz Masterra egin du punta-ko irakasleekin eta maila handiko ikasleekin. «Ikasturtea hasi eta gutxira *masterclass*

bat izan genuen –puntako musikari bat gonbidatzen dute eta emanaldi txiki bat ematen du-. Hor eserita nengoela, ikasleek inguratuta, pentsatzen hasi nintzen zer-nolako musikariak ziren, zer-nolako maila zegoen... Esperientzia horrek asko laguntzen du, zure belaunaldiko jazz musikari onenez inguratuta baitzaude».

Jazzaren bidetik joatea erabaki zuen Eizagirik ikasketak aukeratzeko garaian, eta bide horretan urrats handia da AE-Betara joatea. «Guztiz lagungarria da jazzaren kulturara gerturatzeko. Lagunei beti esaten diet New Yorken musika esperimentatzea nolakoa den galdetzen didatenean: hemen Jazzaldiaz gozatu dezakezu astebetez, baina New Yorken jazz jaialdi batez goza dezakezu gauero, urteko 365 egunetan. Egunero goi mailako musikariak aritzen dira musika jotzen. Esperientzia hori izugarria da. Aukera izatea gauero goi mailako musikari erreferenteak ikusteko, jazz erreferenteak eta jazz masterrak ikusteko. Oso esperientzia baliagarria da».

Musika entzuteko ez ezik, musika egiteko aukerak ere ugariagoak eta anitzagoak dira New Yorken. Eizagirik kontatu duenez, «hiru hilabete hauetan azken bi urteetan baino askoz gehiago ari naiz jotzen. Jazzean gertatzen da normalean proiektu batean baino gehiagotan zaudela murgilduta. Piano-jotzaile batekin askotan jotzen duzu, beste batekin noizean behin, gitarra-jotzaile batekin beste proiektu bat duzu... azken hilabeteotan sarea egiten ari naiz, gero eta jende gehiagorekin jotzen. Baina egia da nire kontu zerbait grabatzea gustatuko litzaidakeela. Akaso ordua da



zerbait berria egiteko», aurre-
ratu ditu bere asmoak.

KONTZERTUA DONOSTIAN

Hasi berria den 2025. urte ho-
netan, dagoeneko egin du
inoiz egin gabe zeukan gauza
bat: pasa den urtarrilaren 3an
kontzertua eskaini zuen Do-
nostiako Victoria Eugenia.
Alboan izan zituen Eneko Die-
guez (saxo altua), Raul Perez
(pianoa) eta Eric Surmenian
(kontrabaxua).

«Berezia izan zen, musikari
horiekin jotzen nuen lehen al-
dia izan zelako. Hemen ez dut
kontzerturik eskaini inoiz, eta
ordua zela sentitzen nuen.
Musika berria zen guztia, ez
dut aurretik plazaratu. Oso es-
perientzia polita izan zen, sa-
rreak hiru egunetan saldu zi-
ren eta oso ondo pasatu nuen.
Jendeari asko gustatu zitzaion
eta hori garrantzitsua da».

Izan ere, konpositorea ere
bada Peru Eizagirre. «Niri for-
makuntzak asko lagundu dit
konposatzeko orduan. Gradua
ikasi baino lehen, ez neukan
jakintza hori. Belarri ona
nuen, pianoan gauza xumeak
konposatzen nituen, baina
formakuntzak lagundu zidan
ulertzen zer ari nintzen jo-
tzen, nora eraman nitzakeen
gauzak... Asko gustatzen zait
konposatzea. Ordenagailuan
badaude programak, eta batez
ere hor hasi nintzen. Gauza
sinpleak egiten hasi nintzen.
Hori oholtzara eramateko eta
beste musikariekin batera jo-
tzeko, ikasi behar da partitura
bat nola egin, pentsatu behar
duzu instrumentuek beren ar-
tean zer-nolako harremana
izango duten...».

Etxean bezala sentitu zen Ei-
zagirre Donostiako kontzer-
tuan, parean senide eta lagun
ugari zituela. «Publiko oso adi-
tuaren aurrean jo izan dut as-



kotan. Adibidez, New Yorken
ohikoa da musikari mordoa-
ren aurrean jardutea; denak
eserita, denak zu aztertzen...
Aldiz, batzuetan entzule ez
hain adituak dituzunean, pu-
bliko berriago baten aurrean

Gabonetan Euskal Herrian
egon ondoren, New Yorkera
bueltatu da Eizagirre, bere
musikari ibilbidea
jarraitzera. Jon URBE | FOKU

**«Hiru hilabete hauetan azken bi urteetan baino
askoz gehiago ari naiz jotzen. Jazzean gertatzen
da normalean proiektu batean baino
gehiagotan zaudela murgilduta»**

**«Glasgown eman nuen azken kontzertua
izugarria izan zen. Guztiz libre sentitzen nintzen,
burua aske, loturarik gabe... Zu horrela sentitzen
zarenean, jendea ere horrela sentitzen da»**

ari zarenean, zirrargarriagoa
da. Nire esperientzian, asko-
tan jo izan dut beste oholtza
batzuetan Europan zehar, eta
orokorrean jasotzen duzun
feelinga publiko horren alde-
tik oso ona izaten da».

Berak ondo gogoan dauka 13-
14 urte zituela Jazzaldian izan-
dako kontzertu bat. «Guztira
hiru ordu iraun zuela uste dut,
baina programatua zegoen or-
dubete eta gehixeago. Kanta
bat amaitzen zuten eta publi-
koa zutik jartzen zen, beste bat
eta beste bat eskatuz».

Oholtzatik bizi izan dituen
kontzertu bereziak ere badi-
tu azalean. «Glasgown eman
nuen azken kontzertua izu-

garria izan zen. Guztiz libre
sentitzen nintzen, burua era-
bat aske, loturarik gabe... eta
azkenean, zu horrela senti-
tzen zarenean, jendea ere ho-
rela sentitzen da. Jendeari
hori sentiarazi nahi badiozu,
zu ere horrela sentitu behar
zara jotzen duzun bitartean.
New Yorken jende oso onare-
kin jo dut. Gogoratzen dut
duela gutxi izandako kon-
zertu bat, areto oso berezi
batean. Duela hilabete hor jo
nuen oso musikari onekin.
Ederra izan zen».

Bizi izan dituen kontzertu
berezien zerrenda bizitzeko
dituenekin osatzen da. Ame-
tsetako kontzertua irudikatze-
ko eskatuta, nahiko garbi
dauka: «Oso ondo egongo li-
tzateke Trinitate Plazan Her-
bie Hancockekin jotzea. Orain
laurogeitaka urte ditu eta jazz
munduan piano-jotzaile izu-
garria da. Miles Davisekin jo-
tzen zuen hogeitazko zituene-
tik, eta musika munduko
askorekin aritu da. Bere kasua
gustatzen zait erakusten due-
lako ez zarela musika genero
bakarrean geratu behar. Jazza-
ren bidez beste estilo batzue-
tara iris zaitezke. Hori da gus-
tatzen zaidana».

Izan ere, Eizagirrek jazzaren
bidetik jaso du formakuntza
eta hortik ari da pausoak ema-
ten musikari profesional beza-
la, baina bera estilo guztien za-
lea da. «Geroz eta estilo
gehiago jo, geroz eta musika
desberdin gehiago jo, aukera
gehiago izan ditzakezu».

Hamar urte zituela eskola-
tik korrika bueltatzen zen
etxera garajea batera jotze-
ra. Hor hasitako bidean jarrai-
tzen du, orduko haur haren
taupada barruan bizirik duela.
Taupa-taupa. •

Oihana AZKUE eta
Amagoia MUJICA TELLERIA